

ezagutzen al duzu Donostia?

Oria Benta

Antzinan, errepide nagusia Irundik Tolosara bidean, Oiartzun, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Andoain zeharkatuz zihoaan. Donostia aparte gelditzen zen eta hirira heltzeko beste errepide-beso bat zegoen, Hernanitik ateratzen zena. Bide hau, Hernaniko Antzian zehar, Oriamendi tontorraren ondoan dagoen Ugartesarretako gaina deituriko lekura igotzen zen. Hemen ermita bat zegoen Hernani eta Donostia arteko muga-mugan; ehun metro aurrerago Oriabenta, Bentaundi edo Benta deituriko etxea dago.

Etxe hau beti Lugaritz auzoko parte izan dugu, Donostiara zihoaan Galtzararen (Goiko Galtzararen) ezkerrean gelditzen baita. Errepide honen eskuin aldean Amara auzoko zati bat izan da beti. Ingu-

ru hau mendeetan zehar Donostiako «portala» izan da; etxe honen ataritik pasa behar izan zuten hirira zihoaen bidaiari guztiek. Ermita galdua zen XIX. mendean sartzerako. Gaur ikusten dugun etxea garai hartan eraikia da, benta, baserri eta bidea zaintzeko gotorleku bezala.



JOSU TELLABIDE

Roxali

Donostiako kantutegia

J.I. ANSORENAK proposatua



Donostiari

Txorikumeak dioten grina
teila-peko kabiari,
pizti txikiak dion nahigina
jardineko loreari,
donostiarrok amore fina
diogu Donostiari,
bai barrendik datorren
nahitasun leiala
jaio ginan txokoari.

Zurriolatik Loiolaraino,
arrandegitik kaiera,
San Bizentetik ixturinaino,

zubi-gaietik Txofrera,
Donosti polit, ez da zu baino
bikainagorik, zu zera
hain kutuna, txukuna,
ta zoragarria
herri berritik zaharrera.


Donostiar bat joaten bazaio
Irutxulotik inora,
bere txokoa erortzen zaio
unetik une gogora,
«noiz joango ote naiz»
-aditzen zaio-
«Urgull mendien ondora»,
ta Rusian, Turkian,
nahiz kalifornian
hau datorkio ahora.

Beste noizbait ere Serafin Barojaren (1840 - 1912) bertsoak azaldu genituen. Hiru damatxo-ren doinu-z kantatzeko dira. Donostiako txoko asko aipatzen ditu. Baita aldizkari honen izena ere.


Horiek agian ez dute behar,



eta zuk?



- Euskarazko lehen Hiztegi Entziklopedikoa
- 12.000 euskaldun hitzarturik obra honetan harpidetzaren bitartez
- 8. alea kalean dagoeneko



Obra honi buruz informazio gehiago jaso nahi nuke, bestelako konpromezurik gabe.

Izen abizenak

Helbidea

Herria P.K.

Lanbidea

Tel.

Moztu eta beheko helbidera bidal ezazu.
LUR argitaletxea • Usandizaga kalea, 17 • 20.001 - DONOSTIA